



Arrazakeriaren
kontrako
DOKUMENTUA

ORGULLOSAMENTE
PODEMOS
AHAL DUGU
HARROTASUNEZ

Aurkibidea

SARRERA	2
SARRERA	3
1. titulua	3
IDEOLOGIAREN EREMUA	3
2. titulua	4
POLITIKAREN EREMUA	4
3. titulua	5
EKONOMIAREN EREMUA	5
4. titulua	6
NAFARROAN	6
5. titulua	7
NEURRIAK	7

SARRERA

ARRAZAKERIAREN AURKAKO dokumentu honetan, hainbat arazo azaldu nahi ditugu, zehazki, legezotasunarekin, gobernuekin eta haien neurriekin eta orobat ekintza politikoak alda ditzakeen eta aldatu behar dituen egoerekin dauden arazoak. Baina, era berean, pertsonen migrazio-mugimenduei lotuta egon ohi diren gizarte-arazoak aztertu nahi ditugu, gizarte hartzaileek migrazioa nola ulertzen duten eta antzina gizakiek hura zer modutara ulertzen zuten kontuan hartuta.

Arrazakeria desagerrarazi beharreko errealitatea da, horregatik esaten dugu dokumentu hau arrazakeriaren aurkako dokumentua dela. Bertan, hiru eremu planteatzen ditugu, eta saiatuko gara arazoa parametro marxisten arabera aztertzen: eremu ideologikoa, eremu politikoa eta eremu ekonomikoa. Hori guztia Nafarroako errealitateari lotuta aztertuko dugu, hurbilenekoari lotuta alegia,

Espainia eta Europa alde batera utzi gabe. Amaitzeko, hainbat ekarpen egingo ditugu, elkar-ulertzeari begira, baita hartu litezkeen hainbat neurri aipatu ere.

SARRERA

ARRAZAKERIAREN AURKAKO dokumentu honetan, hainbat arazo azaldu nahi ditugu, zehazki, legezketasunarekin, gobernuekin eta haien neurriekin eta orobat ekintza politikoak alda ditzakeen eta aldatu behar dituen egoerekin dauden arazoak. Baina, era berean, pertsonen migrazio-mugimenduei lotuta egon ohi diren gizarte-arazoak aztertu nahi ditugu, gizarte hartzaileek migrazioa nola ulertzen duten eta antzina gizakiek hura zer modutara ulertzen zuten kontuan hartuta.

Arrazakeria desagerrarazi beharreko errealitatea da, horregatik esaten dugu dokumentu hau arrazakeriaren aurkako dokumentua dela. Bertan, hiru eremu planteatzen ditugu, eta saiatzen gara arazoa parametro marxisten arabera aztertzen: eremu ideologikoa, eremu politikoa eta eremu ekonomikoa. Horri guztia Nafarroako errealitateari lotuta aztertuko dugu, hurbilenekoari lotuta alegia, Espainia eta Europa alde batera utzi gabe. Amaitzeko, hainbat ekarpen egingo ditugu, elkar-ulertzeari begira, baita hartu litezkeen hainbat neurri aipatu ere.

1. titulua

IDEOLOGIAREN EREMUA

Talde etniko bat besteen gainetik dagoela oinarri hartzen duen sinesmena da arrazakeria, eta horren ondorioz sortzen dira bereizkeria edo jazarpen soziala. Segregazioaren sinonimoa da, hortaz. Hau da, arrazakeria ideologia bat da, edo sinesmen bat, edo bereizkeriaren eta jazarpen sozialaren aldeko pentsamendu bat, eta oinarri hartzen du nire arraza, edo nire etnia, edo nire larruaren kolorea, edo bizitzaren eta gizartearen antolamenduari buruzko nire ideia, edo nire/gure kosmobisioa zurearen/zuenaren gainetik dagoela. Horrela, arrazakeriaz diharduenak, dela pertsona bat, dela herri bat, dela arraza bat, dela kultura bat, edo historia bat, uste osoa du egia absolutua dela berea, arrazoia duela guztian eta guztiarentzat; giza jainkotzat du bere burua, eta gainerakoek gaineko boterea duela eta gainerakoek bizitzari edo bizitzarik ezari buruz erabakitzeke aukera duela uste du. Pentsamendu arrazista oro da bizitzaren kontrakoa.

Gizakia izaki soziala da definizioz, animalien berezko ezaugarria baita hori. Horrek dakar, beraz, -kin bizitzea, hau da, "ELKARREKIN BIZITZEA". Gizartetan antolatu behar gara pertsonak, hortaz, elkarrekin bizitzeko. Esan beharrik ez dago bizikidetzaren osasuntsua izango bada alde batera gelditu behar duela bereizkeriak edo jazarpen sozialaren zantzu txikiak ere, bai pertsona bati buruzkoa izan bai giza talde bati buruzkoa izan.

Baina gizakiok gauza askotan gara elkarren desberdin: kolorea, itxura fisikoa, pentsamoldea, jokamolde sentimentala, gustuak eta autokontrolak, nork bere herentziak eta esperientziak ditu, eta, horrela, kide bakoitza eta atal bakoitza bakarra eta errepikaezina da, natura bera bezala. Pertsona guztiak gara desberdinak, landareak edo zebra baten marrak edo gure hatz-markak desberdinak diren bezala; hala, ANIZTASUNA nagusi da gure bizitzan, aurrekoenetan izan zen eta etorkizunekoetan izango den bezalaxe. Baina hatz-marka guztiak dira gizatiarrak; zebra guztiak dira zebra, marra desberdinak badituzte ere; landare guztiak dira landare, nahiz eta forma desberdinetakoak izan, zein bere lore edo fruituekin eta bere berde kolore bereziarekin, denek behar dute argia, oxigenoa eta ura. Horixe da BERDINTASUNAREN printzipioa.

Hori da PODEMOS/AHAL DUGU gure alderdi politikoaren ideia eta zeregina: ELKARREKIN BIZITZEKO, gizakien premia izanik, ezinbestekoa da pertsonen ANIZTASUNA ERRESPECTATZEA, eskubideen eta betebeharren BERDINTASUNA bermatzeko. Hori da gure erronka Nafarroan, eta orobat PODEMOS/AL DUGU alderdiak har dezakeen eragin-esparru osoan.

2. titulua

POLITIKAREN EREMUA

Historian zehar, gizakiak “ateak” jarri izan dizkio landari, “tximista kaiola batean harrapatu nahian” eta “urakanari uztarriak eta trabak” jarri nahian. Hori guztia “ni inor baino lehen” edo “lehenik ni, nigan eta nirekin” babesteko. Horixe da gaizkiaren jatorria. Elkar bizitzeko beharrezkoa da PARTEKATZEA, beste pertsona - taldea - herria - kultura - arraza - historia askotarikoa delako, nirekiko - nirearekiko - gurearekiko; baina nire berdina - nirearen berdina - gurearen berdina da, eskubide berberak dituelako bizitzaren aurrean, landareek eguzkiaren eta airearen aurrean bezalaxe. Aniztasuna onartzea da berdintasunaren oinarria.

Ahalik eta filosofia gizatiarra eta humanistena oinarri hartuta, bizikidetzaren idiosinkrasia, gainerako izaki bizidunekiko erabateko eta nahitaezko errespetua, pertsonen arteko berdintasunaren aitortpena eta, beraz, guztion DUINTASUNA oinarri hartuz gero, hain zuzen hortik abiatuta, ezinezkoa da hesiak, harresiak, mugak eta abar sortzea. Ezinezkoa da pertsona batzuei eskubide batzuk aitortu eta beste batzuei ukatu egiten dizkieten legeak asmatzea. Ezinezkoa da hemen eta orain norbait legezkota izatea, eta beste norbait legez kanpoko izatea. Ez dago legez kanpoko pertsonarik. Gizakiaren aurkako legeak eta araudiak egotea da legez kanpoko, justifikaezina, onartezina. Ez dago legez kanpoko pertsonarik, legez kontrako legeak eta gobernuak daude, lagun hurkoarekin bizitza partekatzea eragozten baitute.

Norberaren kultura babesteko beste kultura batzuk babestu behar ditugu. Horixe da errespetuaren oinarria, eta arrazakeriaren KONTRAKO jarreraren oinarria. Hau da, nire kultura, nire

herria, nire hizkuntza besteak bezain garrantzitsua da, askotariko balioak ditu, eta horiek bihurtzen dute besteak bezain ona, historia du eta belaunaldiz belaunaldi helarazi da, besteak bezala, ez gehiago, ez gutxiago. Eta balioak eta antibalioak ditu, nireak dituen bezalaxe. Horregatik, gure jarrerak, gure alderdi politikoarenak, arrazakeria mota ororen aurkakoa izan behar du, beste pertsona - herria - kultura - arraza - historia - ideia - bizitza errespetatzen ez duen ororen aurkakoa. Norberarena maitatzea da gakoa, eta horrek ondorioz dakar bestea errespetatzea, nirea bezain adeitsua delako. Ez du balio norberarena maitatzeko bestearena gutxiesteak, horrela traizio egingo litzaioke-eta norberarenganako maitasunari. Ezin da norberarena maitatu bestearen duintasuna aitortu gabe.

Horregatik guztiagatik, PODEMOS – AHAL DUGUK arrazakeriaren aurkakoa izan behar du; arrazakeria mota ororen aurka gaude, arrazakeriak bestearen bizitza mespretxatzea baitakar, eta, beraz, norberaren bizitza mespretxatzea. Arrazakeriaren kontrako jarrerak zeharkakoa izan behar du, eta alderdiaren proiektu politikoaren parte izan. Alderdi internazionalista izan behar dugu bizitza bilatzeari dagokionez; antikoloniala izan behar du, beste pertsonenganako, beste herri batenganako errespetua bermatzeko, eta bakearen defendatzailea, justiziarekin eta duintasunarekin.

3. titulua

EKONOMIAREN EREMUA

Askotan, eztabaida mediatikoetan, baina baita eztabaida sozialetan ere, arrazoi ekonomikoak aipatzen dira migratzaileak hartzeko beharra argudiatzeko. Argudio hori, berez, arrazista da, oso. Baina beharra ez da ekonomia, gizatasuna baizik. Europako erosotasunaren eta hedonismoaren munduan ez dugu belaunaldien arteko erreleboa lortzen. Horregatik, migratzaileek laguntzea “behar dugu”, gure biztanleria berritzeko, bertakook gure erosotasunagatik eta gure "bizitza- eta ongizate-mailagatik" ahaztu ditugun helburu sozialak, giza helburuak eta belaunaldiari dagozkionak betetzeko. Azken finean, karta-gaztelu bat baino ez da. Migrazioak gure gabezien ordezeko erabili nahi ditugu, elikatu eta ekonomikoki eutsi gaitzaten, “kanpotik datoz nire lekura” eta, horrela, “beheragoko arraza” bihurtzen dira. Nire lekuan ahaztu, baztertu edo gizarte-testuinguruagatik arbuatua dugun funtzioa bete behar dute. Horrela, esplotazioa arropa merkez eta ustezko gizatasunez estalita dago. Benetako gizatasun abegikorra izatetik urrun, eta bizitza partekatzen duena izatetik urrun, deskribatutako egoera horrek gizakiak baliatzen ditu, eta, beraz, esplotazio modu berri bat da.

Batzuek uste dute, halaber, migratzaileek geurea kentzen digutela: lana, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, onura sozialak eta bestelako mugak. Ez da, inondik ere, egia: oro har, hemen klasismo sozialagatik arbuatzen ditugun lanak egiten dituzte; gehienetan, iristen direnean, egoera txarrean dauden etxebizitzetan, txaboletan egoten dira eta lo-txandaka eta pilatuta egiten dute, alokairuak gehiegi kobratzen dituztelako; gizarte-laguntzak eskuratzeko duten aukerak ez die kalterik edo eragozpenik jartzen bertakoek laguntza horiek jaso ditzaten. Lege-abusu bat bera ere ez da arrazoi lege hori bertan behera uzteko, eta horrek ez du kaltegarri egiten, parametro horietan

merkatu-ekonomia eten beharko bailitzateke etengabeko abusua bultzatzeagatik eta klase esplotatzailea ugaltzeagatik, klase esplotatuaren bizkar.

Izan ere, migrazioak, egiaz, KLASE BORROKA kontua dira. Ez du migratzen bizi-maila handia duenak, bizirik irauteko arazo larriak dituenak baizik. Zerbaitetan aditua den pertsona bat kontratatzen bada, nahiz eta beste herrialde batean jaioa izan, beste larru-kolore batekoa izan eta beste hizkuntza batez mintzatu, ohorez hartzen da: kirolariak, prentsa arrosako pertsonaiak, kapitalismoaren defendatzaile sutsuak eta abar. Alde handia dago hartzeko orduan, hegazkinez edo pateraz etorri diren, airetik sartzen diren edo lurretik edo itsasoz sartzen diren kontuan hartuta. Herrialde hau eta bertako legeak klasistak dira, beraz, eta migrazio motaren hautaketa egiten dute. Sarreren eta geratzen direnen kontrola egin nahi du, eta betetzen duten funtzioaren arabera, edo beren jatorriaren arabera, hartzen dira. Beste behin ere, ez dira pertsona migratzaileak Giza Eskubideen arabera eta gizateriaren arabera hartzen, baizik eta zer funtziotarako erabil daitezkeen kontuan hartuta, haiek ustiatzeko baliagarriak zaizkigun kontuan hartuta; alegia, esklaboak hautatzen ziren bezala, jatorrizko lekuan bahitutako gizakiz betetako itsasontziak iristen zirenean. Mundu aberatsak modernizatu egin ditu munduko biztanleriaren sistemak eta bizitza. Baina munduaren beste zati bat erabiltzen da oraindik ere mundu ustiatzaileari aberastasuna emateko. Mundu aberatsak, alde batetik, bere onura mugatu eta pribaturako erabiltzen ditu beste leku batzuetan ateratako aberastasunak; beste alde batetik, pertsonak erabiltzen ditu bere zerbitzura jarduteko eta ondasunak handitzeko, eta, horrela, areagotu egiten dira desberdintasunak. Hemen eta orain, mundu aberatsaren eta mundu pobreaken arteko desberdintasunak askoz handiagoak eta gaindiezinagoak dira ekoizpen-modu esklabistan edo ekoizpen-modu feudalistan baino. Kapitalismoak ezarritako piramidea inoiz baino zorrotzagoa eta eskurazina da. Esplotatutako gizarte-klaseko pertsonak gaur egungo ekoizpen-sistema garatzen laguntzen duten neurrian baino ez dira existitzen.

4. titulua

NAFARROAN

Espainiako eredu ekonomikoak eragin nabarmena izan du immigrazioan, bereziki hazkunde demografikoaren, lan-indarraren eta ekonomiaren esparruetan. Immigrazioak biztanleria handitzen eta lan-merkatua suspertzen lagundu du, eta funtsezkoa izan da hazkunde ekonomikoan. Hala ere, migratzaileen gizarteratzeak eta laneratzeak erronka handia izaten jarraitzen du, eta arreta berezia eskaini behar zaio.

Justizia- eta duintasun-planteamenduetara bideratutako gizartean eragina izan nahi duen alderdi politikoa garen aldetik, gure helburuak izan behar du gure lurraldera iristen diren pertsona guztiak normaltasun eta erraztasun osoz gizarteratzea. Badakigu beste herrialde batzuetatik datozenentzat zein zaila den gizarteratzea eta beren egoera izapidetzea, baina gogor lan egingo dugu, giza aniztasunarekiko inplikazio eta konpromisoaren bidez, diskriminazio oro deuseztatu dadin, bai

harreran, bai integrazio sozial eta kulturalen, baita legezotasun-mailari dagokion normalizazioan ere.

Nafarroan, migratzaileek nagusiki nekazaritzan, abeltzaintzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan jarduten dute lanean. Eraikuntzan ere migratzaile ugari dhardu, eta, kasu batzuetan, gutxienetan, baita industrian ere. Herritar migratzaileen banaketa dinamismo ekonomiko handiagoko eremuetan kontzentratzen da, eta, beraz, eskulan gehiago behar duten eremuetan. Hain zuzen ere, sektore horietan du enpresa-ehunak arazo gehien bertako langileak kontratatuzeko. Komunikabideren batek lehen orrialdean zioen "kanpoko" eskulana behar zela, enplegu-premia guztiak asetzeko.

"Gure lurraldea oparagoa egitea" aipatzen den arren, ikuspegi kapitalistaren arabera, produktibitate handiagoaren eta BPGren hazkundearen ondorio da oparotasuna. Enpresaren sektorearen premia horrekin batera, gizartearen zati batek eta alderdi politikoren batek esaten du migratzaileek osasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak eta gizarte-laguntzak betetzen dituztela. Eskulana lortu nahi dugu, askotan merkeagoa, horiek osasunera, hezkuntzara, etxebizitzara eta beste zerbitzu publiko batzuetara sarbiderik eduki gabe? Ez al da alderdi politiko horiek eta Nafarroako, Espainiako eta Europako gizarteko sektore batzuek proposatzen dutena esklabotzaren edo feudalismoaren itzulera, non pertsonak "patroiaren" jabetzakoak ziren? Lan egitera etor daitezene nahi dugu, enpresak eta helburu pribatuak aberasten laguntzera, hemengoek betetzen ez ditugun zaintza-lanak (ez dutelako gure kontu pribatua handitzen) asetzerara etor daitezene nahi dugu, baina, gero, begien bistatik alde egitea nahi dugu, guk zerbitzu publikoetan eta gizarte-onuretan ditugun pribilegioez ere baliatzen direlako.

5. titulua

NEURRIAK

Asko dira imajinatzen ez zuten Europa batean harrapatuta geratzen direnak, milaka kilometro zeharkatu ondoren eta beren bizitza arriskuan jarri ondoren: alde batetik, beren jatorrizko herrialdeetan dauden familiek aurrera egiteko laguntza ekonomikoa behar dutela jakitearen presioarekin; bestetik, beren egoera arautzea eta oraindik beren bizitza-ingurunetik kanpo duintasunez bizitzen hastea eragozten dieten traba burokratiko eta administratiboengatik. Batzuetan, gehiegizko kostuak ordaindu behar izan dituzte eta hipotekatu egin behar izan dira gugana etortzeko. Behin iritsi direnean, enpresa batzuek gehiegizko dirua kobratzen diete, beren egoera erregularizatzeko.

Atzerritarrei buruzko erregelamendu berriak malgutu egiten du baimenak eskuratzeko aukera, zenbait kasutan familia berriz elkartzeko aukera hobetzen du eta aukerak eskaintzen dizkie jadanik Espainian gizarteratuta dauden ikasle eta pertsoneri. Baina baldintzak ere gogortzen ditu, kanpoan uzten ditu kolektibo zaugarriak, eta botila-lepoak sor ditzake baliabide egokirik ezean. Erregelamendu berriaren aldaketa garrantzitsuenetako bat da araudi berriak sustraitzeagatik baimenak eskuratzeko

egonaldi-epaia hiru urtetik bi urtera murriztu duela. Aldaketa horri esker, egoera irregularrean dauden atzerritar askok lehenago lortu ahal izango dute legezko bizileku-baimena. Gainera, bide horretatik lortutako baimenek urtebeteko indarraldia izango dute, eta, berritu ostean, beste lau urtera luzatuko dira.

Arrazakeria eta horren ondoriozko xenofobia oztopo garrantzizkoak dira migratzaileen integrazioarako eta ongizaterako, bizitzaren hainbat eremutan egin behar baitiote aurre diskriminazioari. Funtsezkoa da arazo horri neurri politiko eta sozialekin heltzea, gizaki guztientzat berdintasuna, errespetua eta justizia sustatzeko:

- Zerbitzu publikoak egoera arrazistak eta xenofoboak antzemateko behatoki gisa, orientazio sexuala edo erlijioa kontuan hartu gabe, hezkuntza publikotik nahiz pribatutik hasita.
- Gure erkidegoan eta gainerako autonomia-erkidegoetan sakabanatuta dauden senideak berriro elkartzeko gizarte-eragileak.
- Tratu-berdintasunerako eta bizikidetzara sustatzeko lege integral bat bultzatuko dugu («14. Legea»). Lege horrek arrazakeria eta beste diskriminazio batzuk saihesteko neurriak ezarriko ditu eremu guztietan, eta berariazko erakunde bat sortuko du biktimei laguntzeko. Erakunde horrek salaketak jasoko ditu, ekitaldiak ikertuko ditu Justiziarekin lankidetzan, eta prozedura judizialean parte hartu ahal izango du. Lege horrekin batera, Bizikidetzarako Estatuko Plan Integrala egingo da, enplegu publikoa duten pertsonen prestakuntza emateko, komunikabideetan zabaltzeko, mugetako biktimei ordaina emateko eta deskolonizazio sinbolikoaren prozesuan aurrera egiteko.
- Salerosketaren biktimak zuzenbideko subjektutzat hartuko dira. Legeak administrazio guztien koordinazioa ziurtatuko du, biktimak deportatzea edo CIEtan giltzapetzea debekatuko du, eta erantzukizun penaletik salbuetsiko ditu, baldin eta administrazio-egoera irregularrean badaude. Legearekin batera, administrazio langileentzako prestakuntza-planak egingo dira, eta, horri esker, biktimei arreta integrala emateko mekanismoak sortuko dira; ikuspegi integratzailea izango dute, kulturaz haraindikoa eta babes eraginkorra salaketa dagoen kasuetan, epaiketaz haratago.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuek laguntza ekonomikoari ez ezik, migratzaileak bizi diren komunitatean integrazio sozial eta kulturalari ere erantzun beharko diote.
- Migratzaileei ere eskatzen diegu ahalegina egin dezatela gizarteratzeko eta bertako kulturaren txertatzeko, ghettoen edo bestelako marjinazio-egoeren sorrera saihesteko.

Azken batean, eta hasierara itzulita, iristen zaizkigun pertsonen hemen jaiotako edo aurreko belaunaldietan etorritako eskubide eta betebeharrak dituzte. Inork ezin dit esan non eseri behar duan edo zer mugatan uzten didan nire denda jartzen.

